

## Cédez le passage

### I

-Kaixo –esan dit irribarrez.

Sandwich bat eta coca-cola bat utzi ditut salmahaiaren gainean mutilaren aurrean.

Oraintxe bertan ez naiz haren izenaz gogoratzen.

-Dani naiz.

-Zer moduz, Dani? –diot, azkenik.

-Ondo, eta zu?

-Primeran.

-Bidaian...

-Pss, egun pare bateko itzulia.

Goizeko hamaikak dira. Jonqueran geratu naiz, gasolina hartzera eta jateko zerbait erostera. Banekien bai ezagunen bat aurkituko nuela.

-Ez dakizu, ezta? –dio Danik irribarretsu.

-Zer?

Salmahaiaren atzetik irten da, besotik heldu dit eta dendaren bazter batera eramán nau. Patata poltsa zutabe baten atzetik beste aurpegi ezagun bat atera da, piercing ñimiño bat sudurrean duela. Haren izenaz gogoratzen naiz, bai horixe.

-Liliana...

-Ostia, Vicenç, zertan ari zara hemen?

Diosal egiteko modurik egokienean pentsatzen ari naizen bitartean, bi musu eman dizkit neskak masailetan. Dagoeneko hiru urte pasa dira. Adinez nagusiak izango dira.

-Nola doakizu? Bukatu duzu batxilergoa?

-Lau geratu zaizkit –erantzun dit neskak lotsatuta.

-Eta... gainerakoan?

Mutilak gerritik heldu dio neskari:

-Elkarrekin gabiltza. Horixe zen esan nahi nizuna.

Daniri pasa zaio aknearen garaia, eta gazte lerdan bihurtu da. Lilianak, aldiz, fintasuna galdu du. Garai batekin konparatuta, betetasun oparo bat-edo –nolabait esatearren– antzematen zaio. Sudurra zimurtu du bere burua desenkusatu nahi balu bezala.

-Eta zu? –Daniri begiratu diot-. Dena aprobatu duzu?

-Bai. Prestakuntza ziklo bat hastera noa.

Ezagutu izan ez banitu, bikote polita egiten zutela esango nuke. Baina argi dago eternitate bat pasa dela.

-Frantziara zoaz? –dio Lilianak.

-Bidez bakarrik. Nafarroara noa.

Betidanik gorrotatu ditu isiluneak, eta beharbada horregatik erantsi dut esaldi absurdu bat:

-Nahi al duzue nirekin etorri?

Urtebetez egon nintzen egunero kale itsu batean sartzen. Horixe zen Jonquerako institutuan lanean aritu nintzenez idatzi nahi nuen ipuinaren hasiera: errepide nazionalaren, autobidearen eta auto zaharren biltegi baten artean pilatutako barrakoi multzoa. Institutuaren atzealdean, kalea espanturik gabe ahitzen zen. Horregatik gustatzen zitzaigun Dioniri eta bioi hasierako esaldi hori erdi bana idatzi nahi genuen ipuin horretarako, sekula esaldi gehiago izango ez zituen istoriorako. Hori bai, hilabete gutxiren buruan hasiera aldatu genuen: «Bi urtez egon nintzen egunero kale itsu batean sartzen». Gero institutua utzi nuen eta esaldia txiste pribatu bihurtu zen Dionik eta biok Figueresko tabernetan topo egiten genuen aldiatarako.

Izan ere, nigatik balitz, ipuinak beste modu batean hasi beharko zukeen, hain zuzen, errepide nazionaletik Jonquerara iristean ikusten den paisaia deskribatuz: gasolindegia kamioientzako gasolina mahukekin, kilometro karratutako kamioientzako aparkalekuak, kamioiek bira egiteko moduko biribilgune erraldoiak, jatetxe eta putetxe industrializatuak, tramontanak jotzen duenean ehunka supermerkatu poltsa atzematen dituzten karduz beteriko orubeak. Orube horiek, sarritan eraikuntza azkarreko eraikinak altxatzeko hondeamakinen, zapalgailuen, buldozerren, nibelagailuen eta hormigoi-kamioien aparkaleku gisa erabiltzen direnak, Las Vegasko edozein izkina bezala neoiz argiztaturik gauez eta bertan behera utziak egunez, paisaia ezin hobea iruditzen zitzaidan *road movie* bati hasiera emateko. Beharbada horregatik erantzun dio Lilianak nire galderari baiezkorekin.

-Burutik jota hago? –dio Danik.

-Ez – erantzun dio neskak-. Eta hi ere etorriko haiz.

Zaila da asmatzen zertan ari ote den pentsatzen Dani. Kontua da berehala utzi dugula atzean muga, polizia hipotensoz zaindutako poligono industrial hori, eta Frantziako errepede sare aratzean barrena abiatu garela.

Liliana nire ondoan eseri da. Oinetakoak erantzi, eserlekuaren bizkarraldea atzera bota, lila koloreko azazkaletako oinak guanteraren gainean jarri, eta ikasle izan nituenei buruzko nire datu biografikoak eguneratzeari ekin dio. Danik ñabardurak eta zehaztapenak egiten ditu atzeko eserlekutik.

Seinaleari kasu eginez gero, Languedoc-Rossellon gaude. Itsasertzetik goaz, trenbidearen paralelo, legeak ezarritako 130 kilometro/orduko abiadura gainditu gabe. CDak hartu ditut, baina Lilianak keinu batekin adierazi dit nahiago duela isiltasuna. Tira, isiltasuna...

Carolinak bosgarren saioan atera zuen gidabaimena, Muñeca Ekonomikak ikasten hasi da, Judith haurdun geratu zen, Desire *castellers* elkarte bateko kide da, Clara zerbitzari lanetan ari da.

Corberes, kataroen herrialdea, Sigeaneko erreserba, Tolosa. Lotu aulki-uhalak, faborez.

Sandra ikaragarri gizendu da, Farah Marokora itzuli da, Noemi hockey jokalaria erdiprofesionala da, Mireiak hanka hautsi du, Albak laugarrena errepikatu zuen, Esmek erretzeari utzi dio, Annabel ile-apaintzailea da, Feni taberna zuloan sartuta ematen du eguna, arazoak ahazteko, Ebak hiru piercing ditu, Evelyn medikuekin dabil izerdi asko botatzen duelako, Monika eta Marc elkarrekin dabilza.

Eguzkiaren ibilbideari jarraitzen diogu. Carcassona pastel bat da. Audeko lurraldean gaude, Castelnaudary, galsoroak, eliz dorreak, haize errotak, Midiko kanala, Avinyonet, eguzki-lore alor amaigabeak... zein itsusia den Tolosa hegoaldeko autobidetik ikusita. Muretera iristeko euro eta erdi ordaindu behar dugu. *Vérifiez votre distance de sécurité*. Txantxa bat egin dut, historian zer moduz dabilzan jakiteko, baina Lilianak lo hartu du.

Oscarrek hamalau ordu sartzen ditu egunero, Isaakek autoak garbitzen ditu, Adriak poemak idazten ditu, Raul putetara joaten da, Victorrek moto istripua izan zuen, Erik igeltseroa da, Christian taberna batean dabil, Marcelok tailer batean egiten du lan, Lolok abokatu izan nahi du, David homosexuala da, Charliek gitarra jotzen du, Angelek guardia zibila izan nahi du, Rogerrek *pocket bike* bat dauka.

Longagesen euria ari du, Garona oliba koloreko zerrenda bat da, arrano lau bat Saint-Gaudens gainean. Pic du Midiko atsedean lekuan gelditu gara. Belar errea. Danik eta Lilianak musu ematen diote elkarri zuhaitz baten azpian; ni neu lurrean sartutako hesola multzo baten funtzionamendua ulertzen saiatzen naiz. Kartelaren arabera, ordua adierazten diete lurrean egiten dituzten itzalak irakurtzeko gai diren bidaiariei. Coca-cola edaten dut eta sandwicha eskaintzen diet. Ez dira gose.

Lutilhons atzean utzita, paisaia zabaldu egiten da. *Utilizer votre frene moteur.*

-Iraultzaz geroztik Frantziak beldurra die bat-bateko gorabeherei.

-Zer? –diote biek, atzeko eserlekuetan erdi lo.

-Ezer ez.

-Lourdestik pasatu nahi duzue? –diot maldan behera abiatzean.

-Ez.

Berrogeita hamar kilometro egin ditugu turkesa-koloreko Peugeot 205 baten atzetik. Gero bistatik galdu dugu. Tarbe. *Poids Lourdes, ralentissez*: seinaleak erreferentzia pertsonalez beterik daude. Min ematen dit eskuineko hankak eta bolante betekada daukat. Bi lerrotako errepideak, erdian landarez betea eta Okzitaniako herri izenen karteekin, Palafrugell eta Calella arteko autobidea ekarri dit gogora. Behiak bazkan Biarnon. Baionatik hurbil, Uztaritzerako errepidea hartu dut.

-Utz gaitzazu hementxe bertan –dio Lilianak.

Ezpeletara heldu aurretik gelditu naiz.

-Ezer nahi duzue? Dirua? Ura?

-Ez –erantzun du neskak.

-Agur –dio Danik.

Atzerako ispilutik ikusi ditut, inguruari so.

## II

Etxera bueltan. Muga pasatu dut, markesina bat bi jendarmerekin. Agur paisaiari: muinoak, behiak, ardo beltzaren koloreko atariak. Ezpeleta eta Kanbo arteko biribilgunetik igaro ondoren neska bat ikusi dut oinez errepide ertzean.

Autoan sartu eta atzeko eserlekuan eseri da.

-Ez da ondo atera –esan dit.

Arropa zimurtua du, eta betzuloak, baina ez dirudi ezer larririk gertatu zaionik.

-Horretaz hitz egiteko gogorik baduzu...

Lo hartu du.

Kilometro batzuk aurrerago Dani ikusi dut. Ez du autora igo nahi, baina amore eman du azkenean.

-Ez dut hitz egin nahi –dio. Eta nire ondoan eseri da.

Liliana lo dago, edo lo itxurak egiten ditu behintzat.

Berehala autobidean gaude. Eguzkiak begietan jotzen dit. Berrehun kilometro egin ditugu isiltasunean. Ez dute hitz egiteko gogo handirik; nik bai ordea.

(Duda-mudekin, isiluneekin eta hutsarteekin hitz egin banuen ere, txukun eta argi transkribatuko dut orain, barregarria iruditzen zaidalako espontaneotasunari eutsi nahi izatea, espontaneotasun behartu eta ziurrenik nekagarria ere).

-Urdazubira heltzean ikusi dudan lehenbiziko gauza txakur zuri bat izan da, elizara sartzen. Plaza hutsik dago. Ura, geldotasuna eta harriak. Gizon bat atera da elizatik, txakurra atzetik duela, eta hotela non dagoen esan dit. Nire gela teilatupe bat da. Zurezkoa da, abegikorra, nahiz eta sabaiko leihoa ireki behar dudan zutitu eta burua teilatupetik ateratzeko: larreak, basoak, baserriak, ardiak. Altzariak ilun-kolorekoak dira, eta ez Ikeakoak preseski. Ederki dago. Jangela erakutsi didate eta sarrerako giltza ematen didate. Hoteletik 300 metrora, tabernaren aurrean, pertsona batzuk ari dira hizketan bizi-bizi. Ez dut inor ezagutzen. Gizon batek bostekoa luzatu eta Ferran Rella dela esaten dit. Telefonoz hitz egin nuen berarekin, eta altuagoa eta gizenagoa imajinatu nuen. Hamabost bat pertsona aurkeztu dizkit berehala, bata bestearen atzetik, eta nik ere berehala ahaztu ditut haien guztien izenak. Taldetik urrundu naiz. Itzultzean, aurpegi batzuk ezagutu ditut: Isidor Consul, Alex Broch, Pep Coll. Irriak eta pasamoduko esaldiak trukatu ditugu. Talde bat hurbiltzen da, ezagunak ere bai. Euskal idazleak dira. Egun batzuk eman ditut haien izenak eta aurpegiak memorizatzen, Ferranek bidali zidan liburuxkan agertzen baitira. Inma Errea ezagutu dut, irekia eta lagunkina, eta Itziar

Madina, Pirinioetako Bronte baten fintasunarekin. Jende gehiago dator, eta euskaraz mintzo dira, naturaltasunez. Pixkana-pixkana nire gaztelania olioztatuz doa, mendeetako amets batetik esnatu izan balitz bezala. Imma Monso, Vicent Alonso, Anna Montero eta Xavier Macia heldu dira. Norbaitek garagardo batzuk atera ditu, zirimirari aurre egiteko-edo.

Hodei zuri eta luzekara bat dugu lagun zeruan. Dani leihotik begira dago. Lilianak aharrausi bat ito du, eta hasperen egin du ozen. Eguzkiak liluratu egiten nau temati.

-Bat-batean –jarraitzen dut- espazio errektangeluar batean gaude, sabai kasetoidunarekin. Bizkarrik gabeko bankuetan eseri gara eta Urdazubiko alkatearen hitzak entzuten ditugu. Itxura sendoko gizona da eta gaztelania enfatiko eta sinesgarri bat erabiltzen du. Ramon Sistac markako gaztelaniaz mintzo da: “esperantoz”, haren hitzetan. Fito Rodriguezek literaturari eta Magritteri buruzko testu bat irakurtzen du. Ondoren, bankuak alboratu eta bertako gastronomiaren plazerak dastatzeari ekin diogu. Nafarroako ardoa edan dut lehenbiziko aldiz. Patea bikaina da, *ça va sans dire*. “Beste aldeko” poeta bat aurkeztu didate; hau da, frantziar pasaporte duena: Itxaro Borda. Hala, zailtasun handiegirik gabe frantsesez hitz egiteko kapaz naizela ohartu naiz, gutxieneko alkoholemia gradu batekin noski, nahiz eta ez diodan solaskideari tutik ere ulertu, kutsu faulknarianoa duen esaldi bat izan ezik: “Je travaille à la poste”. Herriko jatetxean gaude, herria bera baino handiagoa dena. Leku txarrean eseri naiz, mahaiaren angelu itsu batean. Eskuinean Isabel daukat, algara tolesgabe eta zaratatsuko emakumea. Ezkerrean, Andreu Lonca; gorbatarekin etorri bada ere, ez dirudi besteok baino gutxiago izerditzen duenik. Xavier, nire parean, katuez, txakurrez, euliez, arrainez, tximuez eta inurriez hizketan ari da. Andreuk esplikatzeko interes handiagoa duela bizitzan literaturan baino. “Handinahia haiz”, esan diot, eta azkenaldian irakurtzen ari naizen Enric Soriaren dietarioaren zati bat errexitatu diot: “Urte asko dira lehentasuna ematen diodala biziraupenari, literaturaz gaindi; bizitzaz, hitz egin ere ez dut nahi”. Nire bibliografiari buruzko azaleko azalpen bat eskaini diot Isabeli, baina badirudi interesatuagoa dagoela Xavier deskribatzen ari den inurri hegalarien koito amaigabea. Arkumea jaten dugu eta Nafarroako ardoa edaten dugu. Noizbehinka Andreuri begiratu eta zera esaten diot: “Bizitzaz, hitz egin ere ez dut nahi”. Itxaro dago haren ondoan. Bob Dylanez ari direla uste dut. Haritik ateratzea bada ere, Sinestro Totalen abestien zatiak aipatzen ditut, eta ezagutzen dudana bertsoz tristeez: *Je meurs de soif auprès de la fontaine*. Sebastia Alzamora agertu da halako batean, eta agurtu

egin nau entsaladilla jateari utzi gabe. Isabelek esan dit udal batean egiten duela lan. Joan Daniel Bezsonoff hurbildu da ondoren, eta Sebastiaren ondoan eseri da. Elkar agurtzen dugu. Kafeen ondoren dozena erdi bat pertsona bildu gara plazan. “Ba al dago tabernarik zabalik?”, “Goikoa”, erantzun du alkateak. Bagoaz. Taberna txikia da, baina musikaren bolumena Studio 54ko dezibelioekin pareka daiteke. Gaztelaniaz jardun dugu: capullo, ostia, joder. Saiatu behar dut “propiamente” hitza hainbeste ez errepikatzen. Garagardoak eskatu ditugu eta kanpora goaz. “Milesker zure txeragatik, alkate jauna”, “Eta zer arraio da hori?”. Denbora gutxira ohartu nahiz Xavier ez dela entomologoa, literatura irakaslea baizik. Stevensonez hizketan hastearekin batera, zirimiria ekaitz bihurtu da. Hotelaren atea zabaldu eta egurrezko eskaileretan gora abiatu naiz. Angelu batean konketa bat dago. Zoruak kirrinka egiten du, ahots sorrak entzuten dira, eta bat-batean *Los otros*-eko etxean nago. Azken finean, Amenabar nafarra da. Edo Armendariz zen?

Liliana leihotik begira dago. Salingerren esaldi batekin gogoratu naiz: “Ez da beharrezkoa gehiegi pentsatzea irakasle batekin hizketan ari zarenean”.

-Dagoeneko ez naiz irakaslea –esan dut, edota oihu egin dut beharbada.

-Zer? –dio Danik izututa.

-Ezer ez. Lourdestik pasa nahi duzue?

-Zer?

-Txantxa txiki bat, joder.

Tira, hasi naizenez, jarraitu egingo dut.

-Jangelan idazle bakoitzak bere mahaian gosaltzen du. Egun on, egun on. Sarako leizeetara goaz autobusez. Muga zeharkatzean, ez dut aldaketarik sumatu alde bateko zein besteko ganaduan, beti bazkan, “*imposible el ademán*”. Leizeei buruzko ikus-entzunezkoa: hizkuntzaren gorabehera fonetikoek, iparraldeko euskaldun baten gaztelanian, galarazi egiten didate edukiari erreparatzea. Gero bitrinaz beteriko areto batean sartu gara, historiaurreko tresnak ikustera, eta Jose Migel Barandiaranen argizarizko estatua beldurgarri bat ere ikusi dugu: apaiza, artzaina eta euskal etnologiaren fundatzailea. Kanpoan emakume gidaria deiadar ari da, Moises Sinain bezala, baina gaztelania ulergarrian. Leizeak espiral forma dauka, urak zizelkatutako eskultura balitz bezala; pena da argiztapen sistema nekagarri samarra izatea. Jordi Pages adiskideak euskarazko hitz bat eskatu dit, eta bat-batean Itziarrek hitz hori ahopeka esan dit: gau-ainara (gaueko enara). Itziarri esplikatu diot *rata penada*-k «lumadun arratoia» esan nahi duela. Esan beharrik ere ez da kasu honetan nahiago dudala euskara. Leizetik

irten aurretik Barandiaranen ektoplasma agertu zaigu, horman proiektaturiko irudi batean, eta prebentzioz begiratu diogu, platoniko eszeptikoak leize intenporal batean. Irteeran minipark telematiko bat dago, dolmen, trikuharri eta tumuluekin. Mikel agertu da, gidaria, bidezidor batetik mendian gora eramango gaituena. Isidorri kasu egin eta basoko marrubi txiki-txikiak irensten ditugu. Oinez goaz. Oinez. Oinez. Haritzak eta gorostiak, zubiak, kontrabandisten zuloa, Infernuko Erreka. Oinez jarraitzen dugu. Hezetasun handia. Immak euritako hori bat ekarri du, *Niagara*-koak bezalakoa. “Mainen erosi nuen”, esan dit. “Aldapa hasiko da orain”, dio gidariak, honaino maldan behera etorri izan bagina bezala. Gorantz goaz. Gorantz. Gorantz. Madarikazioak topaketaren lau hizkuntzetan. Zugarramurdira iritsi gara. Arantzak.

Eskuak txindurritu zaizkit. Hurrengo atsedean lekuan geratuko gara. Komunetik bueltan, txutxu-mutxu bizian aurkitu ditut. Ogitartekora gonbidatu ditut. Autora itzultzean, atzeko eserlekuan eseri dira. Mutilak kilimak egiten dizkio neskari eta honek barre egiten du, apurrez beteriko ahoa zabalik. Nik jan eta hitz egiten dut aldi berean, baina publikorik gabe geratu naizela ohartu naiz.

-Deabruaren katedrala den leize honen sarreran, hogeita hamar bat sorginen zerrenda irakur daiteke; izen-deiturak, krimena eta zigorra: sorginkeriak, banpirismoa, nekrofagia... “Lasaikerian” ibiltzeagatik sutan erretakoen hainbat izen daude. “Zer ordutan bazkaltzen da hemen?”. Eskerrak akelarrearen leizea fresko dagoen. Eva eta Lilith, Aker eta Mollock: Babilonia. Leizea aztertu duen ikertzaileetako bat Barandiaran izan zen. Azkenean mahairatzeko ordua iritsi da. Edu Zelaietaren aurrean esertzea egokitu zait, poeta eta... hizkuntzalari, horrenbestez. Gaztelaniaren sistema bokalikoa ziurrenik euskaratik datorrela esplikatu dit. Nire ezkerrean neska batek feminismo arrazionalerako aldarrikapen bat egin du; bat nator harekin. Berrogei bat lagun gara, ia denak ezezagunak niretzat. Arkumea jaten dugu eta Nafarroako ardoa edaten dugu. Kointzidentzia batzuk aipatzen ditut odolkiaren jolasaren, sardanaren kontabilitatearen, Kataluniako astoaren idiosinkrasiaren eta esentzia nazionalen artean. Hordagoari buruzko Joseba Zulaikaren teoriak eztabaidatu dugu. Etxera itzuli aurretik mus partida bat jokatzeko hartu dudana erabakia jakinarazten dut. Ardiez eta astoez mintzo gara. Katalanez Jose Montilla baino hobeto moldatzen den Eduk euskal jesuitek japonieraren lexikoaren segmentu batzuen eraketan izan duten eragina aipatzen du. Dudarik gabe ikaragarri ari da hobetzen nire gaztelania: *eres la polla, de puta madre, no te jode, manda huevos*. Jatetxetik irten eta ez dugu autobusaren arrastorik ere ikusi. Oinez hasi gara. Oinez. Oinez. Beste bi leize ikusi behar ditugu, Urdazubiranzko bidean.



Nafarroako espeleologia master batean parte hartzen ari naizela iruditzen zait. Ikus-entzunezko guztiak berdin-berdin hasten dira: “Duela ehun milioi urte”. Gero “ur gardenak” aipatzen dituzte eta gogoeta filosofikoekin hasten dira. “Hi David haiz”, bota diot mutil bati. Ez, bada. David ez da etorri: nire zerrendan faltan botatzen nuen euskal idazlea da. Joanen kasua, argazkilaria, okerrena da: ez bakarrik lanera etorri delako eta dromedario baten moduan zamatuta doalako, egun osoan kamerez eta trastez beteriko bere poltsaren *nyigui-nyogui*-a entzun behar duelako baizik. Harengandik urundu naiz, diskrezioz.

Autobidea zeharkatzen duen zubi batera hurbiltzen ari gara, hain justu gizon bat zubitik pasatzen ari denean. Azeleratu egin dut kointzidentzia eragiteko: zubi azpitik igarotzean, gizona gure bertikalean dago. Ziur naiz ez dugula inoiz berriro topo egingo. Atzean, bi gazteak dendako arduradunaz ari dira, barrez. Noizbehinka nerabeen musuen klaska entzuten dut.

-Lo kuluxka egin dut hotelera iristean. Ederra da dutxa bat hartu eta “afarirako janzteia”, nobela biktorianoetan bezala. Zoritxarrez ezin izango dut “jaun” itxuraz afarira azaldu, etxean utzi baitut bizar makina. Zurezko kasetoiduradun gelara itzuli gara. Isidor Kataluniako literaturaren historiaren berrikuspena egiten hasi da. Bizkarrik gabeko bankuan mugitzen naiz deseroso, tai-chi jarrera egokia bilatzen saiatuz. Zoruari erreparatzen diot, hornei, aurrean ditudan garondoei. Halako batean garondo femenino bat ikusi dut metro pare bat haratago. Akabera oneko garondoa dudarik gabe: luzea, simetrikoa sekzio bertikalean, erdialdean diametro txikiagotze leun-leun bat duena. Ederki ematen diote ile hori motz-motzak eta elastiko gorriak, atzeko eskote oparoarekin. Isidorrek hitzaldia amaitu eta Alexek hartu du hitza. Ondoren, Tere Irastortzaren diskurtsoaren txanda da, euskaraz. Garondo probidentzialaren ikuskizunarekin gozatzen dut, eta bizkarrak eta hankek eragiten dizkidaten nekea, gosea eta mina ahantzarazten dizkit. Hitzaldiak amaitu eta afaltzera goaz. Iñaki Zubeldiaren ondoan eseri naiz. *Euskaldun bat Marten* izeneko liburua idatzi du. Gozamina da ikustea nola egiten duen barre jende honek. Norbaitek esan du Alexen katalana ondo ulertzen dela mantso hitz egiten duelako, baina ni aurkako iritzikoa naiz: mantso hitz egiten duela ematen du, ondo ulertzen zaiolako. Bat-batean elastiko gorriko emakume bat eseri zait parean. Ile motz-motza du, horia, eta irri egiten duenean orban txiki bat antzematen zaio sudurzulo baten gainean, tatuaje saihestezina bailitzan. Joan Daniel etorri da atzetik, eta emakumearen ondoan eseri da duda-mударik gabe. Alexek esan dit Kataluniako literaturaren hiztegi bat egiten ari dela. Joan Danielek entzule arretatsu bat

aurkitu du Iñakirengan, eta Rossellon irakaskuntzan bizitako anekdotak kontatzeari ekin dio; anekdotak izugarrikeria eta sarkasmoekin osatzen ditu, irriak eragiten dituztenak, baita nigan ere, hainbat aldiz bizi izan baititut nik neuk ere. Aukera aprobetxatzen dut elastikodun emakumeari, *woman in red*, nire bibliografiaren berri emateko. Arreta jartzen du, atzo Isabelek jarritakoa baino gehiago, beharbada gaurkoan Xavier urrunago dagoelako eta ez ditugulako erotismo entomologikoaren inguruko haren azalpenak entzuten. Bitxia izan da emakume honen agerpena, antza taldeko kide dena baina haren garondo bikaina agertu arte ikusi ez nuena. Arkumea jaten dugu eta Nafarroako ardoa edaten dugu. Xanpaina atera dute, Pep adiskidearen kontura. Danielek barrena arintzen du, zuzendariez, hezkuntza ikuskatzaileez eta lorean dauden alabez hizketan. Diskurtsoan murgilduta badago ere, arretaz erreparatzen dio albokoen jardunari, bolumena igo baitu ikaragarri garondoko emakumearen eta bion arteko komunikazioa oztopatzeko. Jarraian taktikaz aldatu eta kontraerasoari ekin dio. *Cédez le passage*. Etengabeko hitz zaparrada hasi da orduan: ateraldiak, *understatement*-ak, aipuak hitz lauz nahiz neurtitzetan, eta Frank Sinatraren pasarteak. Almidoi emakumea, *woman in red*, atseginez betea dirudi, baina baita zertxobait gainditua ere. Daniel eta biok, su eta gar, *private joke*-aren eremuan barneratzen gara. Emakumeak dio molestatzen ari delako irudipena duela, eta ospa egin du. Gu biok kalakan jarraitu dugu inertziak bultzaturik, beste ordu erdiz, zerbitzariak mahaia jasotzen duten bitartean.

Eguzkia goi-goian dugu. Lastima da Nafarroatik alde egitea mus partida bakar bat ere jokatu gabe. Atzeko eserlekuan, arropa igurtziek hautsitako isiltasuna. Hitz egiten ez badut, loak hartuko nau.

-Afal ondoren Mugaldekoak-en poesia errezitaldia dago. Edu Zelaietak eta haren lagunek hizkuntza frankoetan kantatu eta errezitatu behar dute klaustroaren izkina batean, foku gorri baten pean. Hori bai artea, eta gainerakoa funsgabea da. Muga da hitz aipatuena, hemen eta leku guztietan, muga ikusezin eta nonahikoa. Goiko tabernara goaz. Bezsonoff, lo egiten ez duen gizona, desagertu egin da. Xavier, Pep eta hirurok gaude. Poeta euskaldun bat ere hurbildu zaigu, Gerardo Markuleta. Zaletasun komun bat aurkitu dugu: funtsik gabeko desadostasuna, errespetuz betea eta joriki argudiatua. Xavierrek Edgar Allan Poeren liburu baten berri eman digu, eskolei buruzkoa. *And all I loved I loved alone*. Norbaitek garagardo batzuk atera ditu. Albo batera begiratu dut eta dirdai gorrixka bat ikusi dut urrutiratzen. *Vérifiez votre distance de sécurité*. Hizketan jarraitzen dugu... Monterroso, Sarrionandia, Gombrowicz, literatur kritika... Pep menditarra da: isila, baina behar izanez gero Kundera aipatzen badakien horietakoa.

Bat-batean emakumeak altxa dira: nahikoa da. Topa egin dut Fassbinderren alde: “Nahikoa lo eginen dut hilen naizenean”.

Isildu egin naiz airea hartzeko auto urdin batek aurreratu nauenean, eta lagun zahar bat aurkitu izan banu bezala da: Peugeot urdin turkesa. Duela bi egun hainbeste kilometrotan aurrean izan genuena izango ote da? Haren atzean jarri naiz, eta euria hasi du. Nire bidaiariak berradiskidetze prozesuan jarraitzen dute, Lilianaren hasperen txikiak ñabartutako mututasunean. Uste dut gogotik garbitu beharko dudala autoaren barrualdea. Non arraio sartu ote da Peugota?

-Iritsi da hurrengo eguna. Kruasan bat ikusten dudan bakoitzean bi esaldi etortzen zaizkit burura. Bata, Maria Antonietari egotzia: “Ogirik ez badago, jan ditzatela kruasanak”. Bestea, Figueresen ehunka aldiz entzun dudana: “Si tu ne comprends pas, doncs compra coca”. Eduren mahaian gosaltzen dut. Durrutti Column-ez hasi gara hizketan, Manchesterko rock situazionistaren asmatzaileak. Gero maletak egin eta plazara goaz. Vicent eta Anna badoaz: “Zazpi orduko bidea dugu”. Ez ditut ikusi ez Imma ez Sebastia, ezta almidoi emakumea ere. Andreuk gorbata aldatu du. Ura eta zubiak: Urdazubi. Nire autoan noa autobusaren atzetik. Aperitiboa egin behar dugu Sarako Udaletxean, Jacques Chirac-en erretratuaren azpian. “Baduzu cavarik?” “Ez da cava, xanpaina da”. Alkateak hitz batzuk esan ditu eta topa egin dugu. Egarrri gaude. Erdi Aroko bide bat hartu dugu. Fito Rodriguez Barandiaranen Vienako etapaz mintzo da, eta bidaiako bigarren hitz nagusia oparitu dit. Serafin Barojak –Don Pioren aitak- asmatutako “jai-alai” hitza da, antza garai batean soilik *high life*-ko jendea aritzen zelako pilotan. Argi izpi bat goiz nahaspilatsu batean. Fitori bere bibliografiaz galdetu diot. Euskarazko «errepresentazio» hitzaren adierei buruzko zatikako proiektu bat aipatu dit. Liburu frantses bat dirudi –diot-. Hemendik hurbil Roland Barthesek egonaldiak egiten zituela esaten dit, eta haren pasio estrukturalistaren jatorria inguruan entzuten zuen hizkuntz ulertezinean egon daitekeela erantsi dit. Barre egin dugu. Idatzi duen azken liburuaren izenburuarekin geratzen naiz: *Magrittek ez omen zuen pipatzen*.

-Zer esan nahi du? –galdetu dit Lilianak nire eskolak eteten zituen tornu berberarekin.

-Magritteren piparen ez dakit zer.

Ateri dago eta beirak garbitzekoak martxan daude oraindik. Autobidetik irteteko zorian egon gara. Leioa jaitsi dut pixka bat eta arnas hartu dut sakon.

-Dendara hurbilduko gaituzu? –dio Lilianak-. Nahiago dut gaur bertan arduradunari barkamena eskatu, baldin eta dendan harrapatzen badugu.

-Problemarik gabe.

Dena arduradunarekin hitz eginez konponduko balitz. Aizu, eskapada bat besterik ez da izan, sentitzen dugu, benetan, emaguzu beste aukera bat, tira... eta sudur zimurtu hori berriro ere. Litekeena da aukera hori ematea.

-Berandu iritsi gara Ainhoako udaletxera. Alkateak herriko mapa marraztu digu vileda errotuladore batekin. Hiru egunetan ikusi dudan hirugarren alkatea da: denak alkandora zabalik, denak sendoak, denak gaztelania fonetikoki akatsgabearekin baina totel-motelak lexikoki. Ez dakit zer dela-eta goazen hilerrira, baina deprimitu egiten nau. Gose naiz, egarri naiz, logura naiz, hiru buruko lauburua. Gerardok eta Itxarok esan didate euskaraz ez dagoela generorik, baina aditz jokoa aldatu egiten dela gizonarekin edo emakumearekin hitz egitean. Eta sorgin batekin? Beste aipamen batzuk: “Bizi izan zen bezala hil zen: miserableki”, “Bihar Saigonen egon behar dut”, “Jainkoa existitzen bada, espainola da”, “Ipurdia izateko modu bat da”, “Jada ez da udaberririk izango”. Azkenean jatekera goaz. Itziar, Inma eta Nagoreekin eseri naiz. Politikaz ari gara lehenbiziko aldiz. Bizitzaz, hitz egin ere ez dut nahi. Arkumea jaten dugu eta Nafarroako ardoa edaten dugu. *xai* eta *shy* hitzen arteko paralelismoa esplikatu diet, eta *xaiejar* aditzaren azalpen laburra eman diet. Beldur naiz nire gaztelaniak euskararen azentua hartu ote duen. Komunera noa eta itzultzean amaierako diskurtsoan gaude. Kolpetxoak ematen dizkiot edontziari koilaratxoarekin eta almidoi emakumeren garondoa bilatzen dut alferrik. Zera diot, azkar eta gaizki, «*soy ladrón, soy embustero, me gusta el juego y el vino, me vuelvo al Mediterráneo, je suis tres hereux mais il faut partir déjà, God bless you, adéu-siau, eskerrik asko, eskerrik asko, eskerrik asko*». Ospa egin dut azkenean, muga zeharkatu dut nahi gabe eta atzera egin behar izan dut berriro.

Aparkalekura iristean nekatuta eta zimurtuta gaude –bikotea bereziki-. Danik eskua luzatu dit eta Lilianak bi musu eman dizkit. Egia da haren irribarreak harmonia galdu duela, baina garai batean gai bazen komando suizida bat desegiteko, kapaz izango da orain denda arduradun ergel baten haserrea baretzeko.

-Agur eta eskerrik asko.

-Adio, bikote.

Dendara sartzen ikusi ditut. Neskak gerritik hartu du mutila eta hark eskua pasa dio bizkarretik, garondo luzearen azpitik, erdialdean diametro txikiagotze leun-leuna duen garondoaren petik. Bizitzaz, hitz egin ere ez dut nahi. Ilunabarra da kamioientzako gasolindegien eta ehunka supermerkatu poltsaz beteriko orubeen artetik igaro naizenean.

